

PASAIA / Altita, handia zara

Urko Etxebeste

Bere irudiarekin prestatutako koadroari oihal gorria kendu, eta negarrez hasi zen Altamira Puente, eskuak begietara eramanez. Beharbada, hainbeste urtetan Antxoko Udal Liburutegian lanean ikusi zutenak negarrez ikustea ez zuen nahi; beti ere irrifarrez ikusi baitzuten, laguntzeko prest, adi, adeitsu. 50 urte eman ditut hemen lanean, borrokan. Ez dut bakarrik borroka egin; pasaitarrekin borroka egin dut hau altxatzeko. Nik nuen imaginazio gehien, baina denek nigan sinetsi zuten, lagunduz, esan zuen, ozen.

Izan ere, herenegun, bi zita zeuden hitzartuak Antxoko Kultur Etxean, biak ala biak, elkarrekin harreman estua zutenak. Udal Liburutegiaren 50. urteurrenaren harira, Pasaia Hiria XIV. poesia Lehiaketaren saridunei gorazarre egin zieten. Altamira Puente Altita-ri, hainbeste urtetan Antxoko liburutegiko arduradun izandakoari, omenaldia egin zioten ere bai.

Liburutegiak dena balio du

David Tijerori edo Oier Guillani (Pasaia Hiria XIV. Poesia Lehiaketako euskarazko ataleko lehen eta bigarren sarituak) edo Elena Romani edo Antonio Casadori (gaztekaniatzko ataleko bi lehenak) errespetu guztiarekin, Altamira Puenteren irudia izan zen denen artetik gailendu zena herenegun arratsean. Ander Poza Pasaia Udaleko Kultura zinegotziak esan bezala, errespetu osoa zor dio Pasaia Altamira bezalako langileei; bera bezalako pertsonarik gabe, liburuen biltegia litzateke Antxoko liburutegia. Altamirarekin, arima izan du liburutegi honek.

Altitak, bera lanean izan zen bitartean garaiko udalekin izandako tira birak gogora ekarri zituen, Udalaren laguntza izan dut beti, bai, baina nik gehiago eskatzen nien. Uste nuen liburutegiak dena balio zuela. Pasaia Hiria Poesia Lehiaketa goraipatu zuen, eta Pasaia edertasunagatik eta pasaitarren izaeragatik Poesia Lehiaketari Pasaia Hiria jarri ziola gogora ekarri zuen. Eta saridunek, edonondik sariak jasotzera etortzen zirenean, Pasaiaz hitz egin zezatela nahi nuen; Pasaia, txikia izanik, langileen herria zela, xumea baina ederra.

Gizakiak eta liburuak

Pasaia lau liburutegi izateak edonon ez dela ematen esan zuen Altamira Puente. 1981ean, gogora ekarri zuen, Elie aldizkariak Antxoko liburutegia liburutegi bizi eredu bezala jarri zuela ere, bertan egiten genituen ekimenengatik. Antxokoa Gipuzkoako liburutegirik zaharrenetakoa dela esan zuen; eta horren arrakasta, liburutegia herritarrengana hurbiltzea izan zen. Zer dira liburuak, gizakiek erabiltzen ez badituzte? Gizakiak zer dira, libururik gabe?

Eredu da Altamira Puente. Lan eredu; jakituri eredu, eta jakituri hori herritarren artean zabaltzeko nahia eta helburua izateagatik eredu. Jakituria, liburu bidez, herritartzeagatik. Antxotarren arima asetzeko gogoia izateagatik.

Irabazleen lanekin, bi liburu

Pasaia Hiria XIV, Poesia Lehiaketa lanen irabazleekin bi liburu argitaratu dituzte --euskarazko mailako lehenengo bien olerkiekin bat, bestea gaztelaniazko bi lehenen sorkuntzekin--. Hala, euskarazkoan, David Tijero bilbotarraren poesiak irakurri ahal izango dira, Porroten bilduma izenburupean, baita Oier Guillan errenteriarrarenak ere, Bakarrizketa poetikoak goiburuarekin bilduak. Gaztelaniazko lanak biltzen dituen liburuan, ordea, Elena Romanen (Toledo) eta Antonio Casadoren (Hernani) olerkiak irakurtzeko aukera dago, hurrenez hurren, Dagua eta Filósofos y películas izenburuekin bataiatu dituzte bi poema sortak.

Herenegun arratseko sari banaketan irabazle guztiek --Elena Romanek ez zuen azaltzerik izan-- beren olerki bat irakurri zuten. Beno, Antonio Casadok, bere poemak irakurtzea lotsa ematen diolako, Elena Romanen bat irakurri zuen; Casadorena, Felix Marañak, poesia lehikaetako koordinatzaileak, irakurri zuen. Dosi txikian bada ere, liburutegian bildu ziren ikusleek lau sortatzaileen lanekin ederki gozatu zuten.